

OÑATIKO EAJ-PNVk PROPOSAMEN UGARI EGIN DITU 2019KO UDAL AURREKONTU PROIEKTUA HOBETZEKO ASMOZ

- “Oñatiarren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuna ematera bideratutako proposamen zehatz eta eraikitzaileak egin ditugu”
- Berritasunetako bat, etxebizitza hutsak alokairu babestura merkaturatzera bideratutakoa da. “Etxebiden izena eman duten alokairuzko etxebizitza eskatzaileei zuzendutako Bizigune programa sustatuta, alokairurako etxebizitza gehiago merkaturatzeaz gain, horiek babestutako alokairukoak izango lirateke, hau da, bitarteko gutxien dituztenei bideratutakoak”.

OÑATIKO EAJ-PNVk proposamen ugari egin ditu udal gobernua aurkeztutako 2019ko udal aurrekontu proiektua hobetzeko asmoz. Jeltzaleek proposamenak sektore desberdinetako eragileekin kontrastatu dituzte eta herritarrek egindako eskaerak, hauteskunde programan jasotakoak eta baita proposamen berriak ere jasotzen dituzte. “Oñatiren eta oñatiarren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuna ematera bideratutako proposamen zehatz eta eraikitzaileak egin ditugu, gai desberdinetan, esaterako, tokiko ekonomia, nekazaritza eta abeltzaintza, etxebizitza, gazteria, kirola, zahartze aktiboa edota kultura”.

Osasuna, kirola eta ongizatea

EAJ-PNVk ezinbesteko ikusten du kirola eta ohitura osasungarriak adin guztietan sustatzea. Hori dela eta, 3 kirol proiekturen inguruan azterketa teknikoak egiteko beharra azpimarratzen jarraitzen du: kanpoko igerilekua eta ondoko aisialdi gunea, Urrutxuko atletismo eta futbol baserako gunea eta San Martingo hariztian korrika egiteko pista. Aipatu beharra dago, gainera, azken hori, San Martingo korrika egiteko pista, jeltzaleek azken urteetan behin eta berriz eskatutakoa, izan dela herritarrek 2019ko aurrekontuetarako egin den parte-hartze prozesuan gehien bozkatu duten proposamena (315 bozka).

Jeltzaleek lehentasunezko zat jotzen duten beste gai bat, Olakua eta Olapotoko ingurua birgaitzeko lanak lehen bai lehen hastearena da, bai irisgarritasun aldetik, gune berde eta kirol gune aldetik eta, bereziki, Bidaurretatik aurrerako eremu guztiaren argiztapen aldetik, azken honek bizilagunen etengabeko ezinegona sortzen baitu.

Jeltzaleek proposaturiko berritasunetako bat, etxebizitza hutsak alokairu babestura merkaturatzera bideratutako kontu-saila da. EAJ-PNVk beharrezkoa ikusten du hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzea eta horiek alokairu sozialaren merkaturatzea, behar gehien dituzten herritarren etxebizitzarako sarbidea errazteko. “Alokabiderekin hitzarmen bat sinatzearen aldeko apustua egiten dugu, baina udal baliabideak ere atxikita, etxebizitza hutsak mobilizatu eta horiek alokairu sozialera bideratu ahal izateko. Etxebiden izena eman duten alokairuzko etxebizitza eskatzaileei zuzendutako Bizigune programa sustatuta, alokairurako etxebizitza gehiago merkaturatzeaz gain, horiek babestutako alokairukoak izango lirateke, hau da, bitarteko gutxien dituztenei bideratutakoak. Kontu-sail honek, programa honen inguruko informazioa emateaz gain, diru-laguntzak jarriko lituzke Bizigune programan sartzeko obren beharra duten etxebizitza hutsen jabeek lan horiek egin eta alokairu sozialean jartzeko”.

Jeltzaleek, herritarren gehiengo baten eskaerari erantzunez, bizikleta eta patineteen zirkulazioa arautuko duen ordenantza baten beharra ere jarri dute berriz ere mahai gainean.

EAJ-PNVk lehentasunezko gaitzat dauka genero berdintasunari bultzada bat emango dioten neurriak hartzea. Hori dela eta, zenbait proposamen egin ditu, batetik, gizonezkoak berdintasunezko balioetan kontzientziatzeko eta inplikatzeko eta, bestetik, hirigintza arauetan egin beharreko aldaketen bidez, emakumeak arriskuan egon daitezkeen edo segurtasun falta sumatu dezaketen puntu beltzak ezabatzeko.

Herritar ugariaren babesa duen eta jeltzaleek legealdi guztian zehar behin eta berriz eskatu duten beste proposamen bat Oñatik “Euskadi Lagunkoia” programarekin bat egitearena da. Aipatu programak helburu ditu, zahartze aktiboa eta parte-hartze mugimenduak eta zeharkako politikak sustatzea, adin guztietako pertsonentzako Oñati lagunkoi bat egiteko.

Nekazal sektoreari eta tokiko ekonomiari bultzada

Oñatin landa eremuak garrantzi handia du eta beharrezkoa da beren eguneroko lanaren bitartez ingurumenari hainbeste onura ekartzen dioten baserritarren lana biziberritzea eta lan horren etorkizuna bermatuko duten irtenbideak bilatzea. Horretarako, jeltzaleek beharrezkotzat jotzen dute, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sektoreen egoeraren diagnosi bat egitea eta neurri zehatzen bidez irtenbideak ematea. EAJ-PNVk, beharrezkoa den diagnosi horrez gain, diru-laguntza kontu-sail garrantzitsu baten beharra ere ikusten du, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza ustiapenetan hobekuntzak egiteko, Foru Aldundiak garatzen dituenekin elkarlanean. Nekazal sektoreak eskatzen duen mugarrien digitalizazioa ere beharrezkoa ikusten dute jeltzaleek, baita landa auzoetako argiztapenean hobekuntzak egitea ere.

Bestalde, Oñatiko merkataritzak dituen zailtasunak begi-bistakoak dira, baita honek dakartzan kaleetako bizitzaren eta lanpostuen galera ere. Hori dela eta, EAJ-PNVk Oñatiko merkataritza eta ostalaritzaren egoera eta baita oñatiarren kontsumo ohiturak aztertuko dituen diagnostiko baten beharra ikusten dute, hori oinarri hartuta neurri zehatzak jasoko dituen urte anitzeko plan bat garatzeko, hainbat arazori, esaterako, belaunaldi aldaketari edota internet eta azalera handien kompetentziari erantzuna emateko. Horretarako, dagoeneko proposatu dute jeltzaleek, belaunaldi aldaketa egiteko edota komertzio, enpresa edo autonomo berriei lehen 3 urteetan alokairurako laguntzak emateko diru-laguntza lerro bat jasoko duen kontu-saila.

Gazteria, kultura, euskara eta hezkuntza

Gazteei dagokienez, jeltzaleen proposamenetako bat, urtero Gazteen Astea ospatzea da, 15-18 urte bitarteko gazteentzako hainbat programekin, baita ikasleen eskaerei erantzuna emateko ikasketa gelak ordu-tegi zabalago batean eta asteburutan irekitzea ere.

Kultura arloan, EAJ-PNVk hiru ekintza lerro proposatzen ditu. Lehenik eta behin, beharrezkotzat jotzen dute kultur eta gizarte ekipamenduen azterketa sakon bat egitea, horien indargune eta ahulguneak ezagutzeko eta kudeaketa eraginkorrago baten bitartez hobetzeko. Bestalde, jeltzaleek ongi asko ezagutzen dituzte auzoetako jai batzordeek beren lana burutzeko dituzten zailtasunak eta laguntza ekonomikoaren eta aholkularitza teknikoaren beharra jartzen dute mahai ganean. Azkenik, EAJ-PNVk, kulturaren eta sorkuntzaren inguruko lana aintzatetsiko dituzten sarien aldeko apustuari eusten diote.

Euskararen eta hezkuntzaren alorretan, jeltzaleek beste hiru proposamen zehatz egin dituzte. Batetik, beharrezko ikusten dute ikasle migranteen harrera egiten duen hezkuntza programaren analisi bat egitea, bai ikuspuntu akademikotik, baita euskara edo inklusio aldetik ere, ikasle migrante kopuruaren gorakadak sortutako behar berriei erantzun egokia eman ahal izateko. Gainera, Oñatira iristen diren ikasle horiei laguntzeko eskola eta kirol materialerako laguntzen beharra ere azpimarratzen dute. Azkenik, adin txikikoek beren aisia eta kirol esparruetan euskara erabiltzea sustatuko duen begiraleen programa bat ezartzea ere proposatu du EAJ-PNVk.

EAJ-PNVren udal taldeko zinegotziek, urtez urte egin duten bezala, herritarrekin eta arlo desberdinetako kolektiboekin landutako proposamen horiek guztiak, oñatiarren ongizate maila hobetze aldera aurkeztu dituzte.

EAJ-PNV DE OÑATI HA REALIZADO NUMEROSAS APORTACIONES A LOS PRESUPUESTOS DE 2019, CON EL ÁNIMO DE MEJORAR EL PROYECTO PRESUPUESTARIO

- “Realizamos propuestas concretas y constructivas, encaminadas a dar respuesta a las necesidades actuales y futuras de Oñati y las y los oñatiarras”
- Una de las novedades es la propuesta destinada a movilizar la vivienda vacía hacia el mercado de alquiler protegido “Impulsando el programa Bizigune, al que pueden acceder demandantes de vivienda en alquiler inscritos en Etxebide, no sólo se aumentaría la oferta de alquiler en nuestro municipio, sino que éste sería protegido, es decir, destinado a las personas con menos recursos”

EAJ-PNV de Oñati ha realizado numerosas aportaciones a los presupuestos de 2019, con el ánimo de mejorar el proyecto presupuestario presentado por el equipo de gobierno. Los jeltzales, que incluyen propuestas que dan respuesta a peticiones recibidas de la ciudadanía, han contrastado las mismas con diferentes agentes sectoriales e incluyen tanto propuestas de su programa electoral como nuevas propuestas. “Realizamos propuestas concretas y constructivas, encaminadas a dar respuesta a las necesidades actuales y futuras de Oñati y las y los oñatiarras, en diversas materias como la economía local, el sector agrario, la vivienda, la juventud, el deporte, el envejecimiento activo o la cultura”

Salud, deporte y bienestar

EAJ-PNV es consciente de la importancia de promover el deporte y los hábitos saludables en todas las edades. Por ello sigue insistiendo en la necesidad de realizar estudios técnicos para 3 proyectos deportivos: una piscina exterior y la zona de esparcimiento contigua, la pista de atletismo y fútbol base en la zona de Urrutxu y el sendero para correr en el robledal de San Martín. Cabe destacar que este último es uno de los proyectos más demandados por la ciudadanía (315 votos) en el proceso participativo llevado a cabo para los presupuestos de 2019 y que ha sido una demanda recurrente por parte de los jeltzales en los últimos años.

Otra de las prioridades que insistentemente plantean los jeltzales, es que se inicien las obras para la rehabilitación de todo el área de Olakua y Olapoto tanto desde el punto de vista de la mejora de la accesibilidad, de las zonas verdes y deportivas como, especialmente, de la iluminación de toda la zona desde Biudaurreta ya que está siendo objeto de queja constante por parte de las y los vecinos.

Una de las partidas más novedosas que se han planteado, es la destinada a fomentar que las viviendas vacías se incorporen al mercado de alquiler social del municipio. EAJ-PNV ve necesario incluir una partida destinada a movilizar la vivienda vacía y promover el alquiler social, con el objetivo de facilitar el acceso a la vivienda a las ciudadanas y ciudadanos que tienen mayor dificultad. “Apostamos por suscribir un convenio de colaboración con Alokabide, dotándolo además de recursos municipales, para movilizar la vivienda vacía y así aumentar el parque de viviendas destinado al alquiler social. Impulsando el programa Bizigune, al que pueden acceder demandantes de vivienda en alquiler inscritos en Etxebide, con lo que no sólo se aumentaría la oferta de alquiler, sino que éste sería protegido, es decir, destinado a las personas con menos recursos. Con esta partida además de facilitar información sobre este programa, se destinarían recursos a ayudas a las y los propietarios de las viviendas que, tras haber estado vacías, necesitan adecuaciones para poder incluir su vivienda en este Programa”.

Asimismo, los jeltzales, atendiendo a la petición mayoritaria de la ciudadanía, siguen insistiendo en la necesidad de realizar una ordenanza que regule la circulación de bicicletas y patinetes.

Los jeltzales, consideran prioritario dar un impulso decidido a las medidas para la igualdad de género. En este sentido EAJ-PNV propone jornadas específicas para concienciar e implicar a los hombres en los valores de la

igualdad y, además incluyen otras, encaminadas a introducir reformas en las normas urbanísticas orientadas a la eliminación de puntos negros en los que las mujeres puedan ser agredidas o sentirse inseguras.

Otra de las propuestas que cuentan con el apoyo de un colectivo importante de personas y que los jeltzales vienen planteando durante toda esta legislatura es la de adherirse al programa “Euskadi Lagunkoia”, cuyo objetivo es promover el envejecimiento activo, crear movimientos participativos y políticas transversales para hacer de Oñati un municipio amable para las personas de todas las edades.

Impulso del sector agrario y la economía local

Oñati es una población en la que la zona rural tiene un peso importante y es necesario revitalizar y buscar soluciones que proporcionen un futuro a las y los baserritarras que con su labor del día a día contribuyen a proteger y mejorar nuestro entorno y el medioambiente. Para ello, ven prioritario realizar un diagnóstico del sector agrario, ganadero y forestal para buscar soluciones mediante medidas concretas. EAJ-PNV plantea, además del necesario diagnóstico, una partida importante de ayudas para la mejora de explotaciones agrarias, ganaderas y forestales en colaboración con las que se vienen desarrollando desde la Diputación. También insisten en la necesidad de digitalizar los mojones, algo que se demanda insistentemente desde el sector rural y plantean un plan de mejora en la iluminación de los barrios rurales.

Por otra parte, es constatable la dificultad que atraviesa el pequeño comercio de Oñati, con lo que ello conlleva de pérdida de vida de las calles y pérdidas de puestos de trabajo. Por este motivo, EAJ-PNV solicita realizar un diagnóstico tanto del estado del pequeño comercio y la hostelería como de los hábitos de consumo de las y los oñatiarras y sobre esa base realizar un plan de acción plurianual con medidas concretas que resuelvan problemas como el traspaso generacional, la competencia de internet y las grandes superficies. Para ello, han propuesto ayudas económicas para casos de relevo generacional así como para la financiación del alquiler durante los tres primeros años para casos de nuevos negocios de comercio, pequeñas empresas y autónomos.

Juventud, Cultura, euskera y educación

En lo que se refiere a la juventud, los jeltzales proponen, por una parte, organizar anualmente una Semana de la Juventud con programas diversos para jóvenes de entre 15 y 18 años y, por otra, atendiendo a las demandas de las y los estudiantes, han propuesto que se habiliten espacios o aula de estudio con un horario de apertura amplio para los fines de semana.

En el ámbito de la cultura EAJ-PNV plantea tres líneas de acción. En primer lugar ven primordial realizar un análisis exhaustivo de los equipamientos culturales y sociales existentes, conocer sus fortalezas y debilidades y adecuarlas para una gestión más eficiente. Los jeltzales, conscientes de las dificultades que tienen las comisiones organizadoras de las fiestas de los barrios para su gestión, también han planteado ayudas económicas y de asesoría técnica para ayudarles en cuestiones legales de su organización. Y por último, desde EAJ-PNV siguen apostando también por instaurar premios al reconocimiento al trabajo en el ámbito cultural y creativo en general.

En cuanto al ámbito de euskera y educación, los jeltzales realizan tres propuestas concretas. En primer lugar ven necesario realizar un análisis del programa educativo para la acogida de escolares migrantes, tanto desde el punto de vista académico, del euskera, como de la inclusión, con el fin adaptarse a las nuevas necesidades generadas por el incremento de este alumnado. Además, insisten en proponer ayudas para material escolar y deportivos para estos escolares que llegan a Oñati. Y en tercer lugar, han solicitado que se implante un programa con monitores que impulsen el uso del euskera entre las y los menores durante su tiempo de ocio o de deporte.

Las y los concejales del grupo municipal de EAJ-PNV, como lo vienen haciendo año a año han presentado toda una batería de propuestas que han trabajado en estrecha colaboración con personas y colectivos de diferentes ámbitos, con el fin de aportar mejoras en beneficio del bienestar social de las y los oñatiarras.

GRUPO MUNICIPAL DE EAJ-PNV DE OÑATI
En Oñati, 3 de diciembre de 2018